



NEWSLETTER



IntGen

Intergenerational mentoring
for entrepreneurs

Belaunaldi artekoa - Zertaz ari gara?

Gutxi erabilitako hitza da, belaunaldi bat baino gehiago batera lanean eta ospakizunak partekatzen, batzuk besteengandik ikasten, elkar laguntzen aritzen direla esan nahi du. Hori naturaltasunez gertatzen da familiaren baitan, aldiz nahiko ezohikoa izaten da lagunaren edota ezezagunen artean. Kultura ugaritan, adineko pertsonak euren gaitasunengatik beneratuak izaten dira eta gazteei haiei arretaz behatzea dagokie, haien ezagutza barneratzeko ahaleginean. Herrialde garatuenetan, hau gertatzea ezohikoa da – adinekoak sarritan baztertuta sentitu ohi dira, bere ezagutza ez da kontuan hartzen eta euren esanetan, dagokien gizartean ikusiezinak hala nola gutxietsiak sentitzen dira.

Gazteriak ere antzeko zerbait senti dezake, izan ere, sarritan “gazteegiak omen dira behar adina ezagutza izateko” eta ondorioz baztertuak izan ohi dira;

ezin dugu ahaztu belaunaldi hauek behar bezala prestatuta datozela aldaketa guztiekin egokitzeko.

Adinekoak gazteengandik ikasteko moduan daude, gazteek adinekoengandik ikasteko bezainbat. Gazteriak aurrera egin du teknologiarekin eta adinekoek irakasteko prestatuta daude, sarritan haiek erabileran zailtasunak baitituzte. Zahartuz goazen heinean gero eta zailagoa gertatzen zaigu aldaketak onartzea, aldiz gazteak garenean aldaketarako gure jarrera etengabea da, ingurune mugimenduekin errazago egokitzen gara.

Arazo komuna da Europa osoan eta ez da bere kabuz desagertuko

Gizarteak arazo hau ezkuta dezake, baina bi arazo garrantzitsu daude Europa osoan: gazteen arteko langabezia tasa handiak (hainbat herrialdetan 30 urtetik beherako % 50a baino gehiago langabezian dago eta lana

aurkitzeko bere itxaropenak urriak dira) eta aldaketa demografikoak bizitza itxaropenaren tasa handiagoak eta baldintza hobek dakartzatenak (Europako biztanleriaren % 23ak 60 urte baino gehiago izango ditu 2020an).

Zorionez, EB-ko bizitza itxaropenak gorantz egiten jarraitzen du. Hau arro egoteko arrazoi bat da eta gizarte eredu aldaketa garrantzitsuak dakartza, bereziki lan-munduari dagokionez. Europa 2020 Estrategiaren helburu giltzetako bat da enpleguaren % 75era heltzea; helburu hau beharrezkotzat jotzen da gizarte babeserako sistemen jasangarritasuna bermatzeko orduan, European antzematen den zahartze demografikoa kontuan hartuta. Adineko pertsonen menpekotasun tasa gorantz doa eta 2040an 65 urtetik gorakoek lanerako adineko biztanleriaren % 45a baino gehiago ordezkatu dute.

Estatu kidetako askotan atzeratu egin da erretiroaren adina, lan ibilbidearena luzatuz. Atzerapen horrek gehiago kaltetzen ditu langile gazteak, oro har, adinekoak baino. EB-ko langabezia % 24koa da, helduen langabezia tasarekiko bikoitza. Hala ere, hainbat herrialde beste batzuk baino gehiago sufritzen ari dira. Adibidez, Grezian eta Espainian, langabezia % 59koa eta % 56koa da, hurrenez hurren. Hala ere, 55 eta 64 urte bitarteko langileek, euren lanpostua galdu



NEWSLETTER



IntGen

Intergenerational mentoring

dutenek, langabezia epe luzeagoan jasateko joera dute edo are lanera ez itzultzekoa. Gaitasunak edota birmoldaketa hobetzeko beharra dago, izan ere, sarritan erretiro adinaren ondorengo lanerako beharra jadanik indarrean dago edota jarri egingo da.

Biztanleria lokalari eta ekonomiari dagokionez, oro har kezka handia antzematen da langile esperientziadunak eta adinekoen potentziala galtzearen inguruan. Errefusa espermentatzeak (errealak edota besterik gabe ustezkoak) morala, motibazioa eta norbere buruarekiko konfiantza azkar ahuldu ditzake, adineko ugariaren uko egitea eraginez, horrela “ezkutuko langabezia” egoeran partaide izatera heltzeraino. Adineko ugari dira euren burua “zaharregizat” hartzen dutenak, lan egiteko eta ikasteko orduan.

Zergatik ekintzaileak?

Ekintzailtza, edo are auto-enplegua, besterik gabe, aukera bat da langabezia edota kaleratze egoera bati aurre egin beharrean aurkitzen den edonorentzat. Aukera ezberdinak daude gazteriarentzat, esaterako negozio

propioa zabaltzea ohiko lanbidetan edo bestela teknologoaren arloan aplikazioen garapenean, web tokien diseinuan edota antzeko bestelakoetan. Baina litekeena da horretarako laguntza pixka bat beharrezkoa izatea ideia bideragarria dela egiaztatzeko, negozio bat nola eratzen den ulertzeko, inplikatzeko dituen lege alderdiak barne eta ideia nola merkaturatu jakiteko. Ekintzaile berrien nahia izan liteke enpresari ospetsuen zerrenda osatzea; horien artean leudeke Richard Branson, Virgin Records enpresa ur gaineko itsasontzi batean oso diru gutxirekin sortzeagatik ospetsua bihurtu zena; edota Mark Zuckerberg, Facebook sortu zuena, oraindik unibertsitatean zegoen bitartean; beste adibide ugari daude, horien artean Bill Gates, egungo munduko gizonik aberatsenetakoa. Baina negozio bat zabaltzen duten ekintzaile gehienek gogor egin behar izaten duten lana lehenengo urtetan, hura martxan jartzeko eta batez ere mantentzeko. Adineko pertsona ugari kaleratze egoeran aurkitzen dira langile-taldearen murrizketagatik, izan ere, merkatu globala aldatu egiten da eta negozio ugari langile gutxiago behar izaten dira edo besterik gabe horiek 50 urtetik gorakoak direlako

eta zenbait enplegu-emailleek nahiago izaten dutelako gazteak kontratatu euren taldeetan. Oso legezkoa ez dela ematen badu ere, maiz gertatzen den egoera da. Agian egoera honetan aurkitzen diren pertsonetako zenbaitek euren enpresa propioa eratzea pentsatu dute, baina beldurtu egin dira balizko arriskuen aurrean, bereziki familiaren ardura euren gain badago. Beraz, langile-taldea murrizteko kaleratzea aukeratzat har daiteke eta asko dira hori onartzen dutenak, izan ere, lana aurkitzea zaila gertatuko zaiela jakitean arriskua murriztu egiten dela dirudi. Pertsona hauek “senior ekintzaileak” ‘olderpreneurs’ izendapenarekin ezagutzen dira eta ugari izaten doaz. “Senior ekintzaileak” ere laguntza behar dute, zeren sarritan ezer gutxi dakite negozioen munduaren inguruan. Europako herrialde batzuetan, batez ere Europako Ekialdeko herrialdeetan, negozio propioa zabaltzea gero eta jarrera ohikoagoa bihurtzen ari da, nolabait “araua” bihurtuko balitz bezala, aldiz Finlandia bezalako beste batzuetan, enpresa izpiritua beherantz doa pixkanaka eta beharrezkoa da pertsonak euren negozio propioak zabaltzeko ekintzailtzara bultzatzea.



NEWSLETTER



IntGen

Intergenerational mentoring
for entrepreneurs

Hainbat herrialdetan, eskualdeko garapen ekonomikoak negozio mota jakin batzuek sustatzen ditu. Horren adibidea da Bristol (Ingalaterra mendebaldeko hiria). Ingurune erabat oparoa garatu da – ehunka gazte ari dira euren multimedia negozio propioak garatzen estrategia ekonomikoak, marketing berezia eta enpresa esperientziadunek zein partikularrek sorturiko ezagutza zentroak lagun.

Europar, urtero, ehunka mila negozio eskualdatu izaten dira jabeak erretiratzeko direlako edota beste jardura batzuetan murgiltzen direlako. Batez beste urtero 150.000 enpresa inguru galdu ahal dira, 600.000 lanposturekin, hainbat eremu geografikotan antzematen diren zailtasunak direla medio. Oro har jasagarriak diren Pyme-ak ditugu hizpide, ezagutza baliotsua, langile esperientziadunak, produktu bideragarriak eta bezero multzo sendoa dakartzatenak; enpresa eskualdatze akastunaren ondorioz itxi denean, bere ekoizpen potentziala ezinbestean galdutzat ematen da.

Enpresa ekimena” termino oso erabilia da, baina oro har talde interesdunen arabera terminoari ñabardura multzo zabala dagokio eta ez negozio propioa zabaltzearena soilik. Hain zuzen, talde-lanean jarduten edota proiektuak gestionatzen jakitea oso erabilgarria izan ahal da beste lan ugaritan. Sarritan lan-merkatuko joerekin egokitzeko eta horiekiko aurrea hartzeko gaitasunean datza.

Zein da Aholkularien zeregina?

Aholkulari batek negozio berri bat sortzen lagundu dezake edota enpresari berri bati bere negozio propioa administratzeko laguntza eman. Aholkulari bat ez da coach bat, ezta irakasle bat ere, aldiz esperientziadun pertsona bat da ekintzaileari laguntza eta gida eman ahal diona, enpresak arrakasta izateko edota garatzeko hartu beharko duen noranzkoari dagokionez. Horrek ez du esan nahi aholkulariaren eraginez negozioa arrakastatsua izango denik, baina agerikoa da prozesu honetan lagungarria izan daitekeela.

Enpresa berrien % 50 inguru dira euren lehenengo bost urtetan porrota jasaten dutenak. 2020rako Europaren hazkunde ekonomiko objektiborako tasak handitzea lortzeko ezinbestekoa da enpresen hobetze eta lehiakortasun gaitasuna bultzatzea.

Behar bezala informatuta egotea, lanbide zerbitzu egokiak eta aholkularitza teknikoaren babes egokia oinarritzko baliabideak dira helburu hori lortzeko. Europako eta EE.UU.-ko programen arabera enpresari esperientziadunen aholkularitza eta tutoretza hobetze gaitasuna jorratzera datoz, baita hazkundera eta kopuru ugartzea bultzatzera ere, enpresa berrien sorrerari dagokionez. Gaur egun oinarritzkoa da enpresa berrientzat laguntza eskaintzea, berrikuntzarako horien gaitasuna garatuko bada.

Komunikazioaren teknologiak eta Internet hazkunde iturri nagusien artean daude, mundu osoko ekonomia nazionalerako. Europako Pyme-ak bi edo hiru aldiz bitartean azkarrago hazten dira, teknologia digitalak erabiltzen dituztenean.



NEWSLETTER



IntGen

Intergenerational mentoring
for entrepreneurs



Beraz, Europako enpresariak beharrezko ezagutzarekin, gaitasunekin, hardwarearekin eta softwarearekin hornitu beharko lirateke, merkatuan sortzen diren aukerak antzemateko, batez ere eskusiboki edo nagusiki web-enpresari bailiran funtzionatu ahal izateko, funtzionatzeko modu hau hautatzen badute.

Adineko pertsona ugari izan arren erretiroa hartzen dutenak, beste batzuk dagokien gizartean ekarpena egiten jarraitzea hautatzen dute. Asko dira 80 urte edota are 90 urte bete arte jardunean mantentzen direnak. Pertsona horiek euren negozio propioa arrakastaz zuzendu badute, esan nahi du bere gaitasunak baliotsuak direla.

Pertsona hauek aholkulari ezin hobeak izango lirateke euren ezagutzak direla eta; laguntza berdin eman lezakete gazteentzat zein adinekoentzat bere negozio propioa zabaltzeko orduan, horiek enpresariak (edota senior ekintzaileak/ olderpreneur) bihurtu ahal izateko lagungarri izanik.


Halaber jende langile, enpresari ugari dago jardunean, arrakastarekin, "trukean zerbait eman" nahi dutenak, jende gazteari aurrera egiteko laguntza eman nahian, enpresa berriak bultzatzeko euren aisialdiari borondatez uko egiten diotenak; zenbaitetan horretarako ikastun bat kontratatzen da, eta ikasleentzat lanbide praktikak eskaini, horiek esperientzia baliotsuak eskura ditzaten edo bestela enpresa berri edo pertsona baten aholkularitza garatu.

Hau lagungarria izango da negozioaren arrakastarako. Informazio gehiago eskuratzeko, mesedez, kontsultatu proiektuaren web orrialdea edota harremanetan jarri proiektuko kideren batekin.

Horrenbestez... INTGEN proiektua

2014an sortua, 3 urteko INTGEN proiektuak aholkulariak prestatzeko ikastaroa eratuko du, horiek enpresariak prestatu ditzaten. Halaber izpiritu ekintzailerako prestakuntza eskainiko du, enpresa txikiak zabaltzea eta garatzea bultzatzeko.

Hau lagungarria izango da negozioaren arrakastarako. Informazio gehiago eskuratzeko, mesedez, kontsultatu proiektuaren web orrialdea edota harremanetan jarri proiektuko kideren batekin



Partners of IntGen

Project Coordinator



cdea

Centro de Formación de Administración y Hostelería S.L. (cdea)
PASEO DE BERIO 50
20018, DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Pais Vasco, Spain
mjirastorza@irakasleak.cebanc.com



Bath College, Avon Street
Bath BA1 1UP, United Kingdom
Matt.finch@bathcollege.ac.uk



Age UK Bath and North East Somerset
18 Kingsmead Square, Bath BA1 2AE
United Kingdom
janet.dabbs@ageukbanes.co.uk



Errotu Taldea S.L.P
Bera Bera Pasealekua 75,1°
20009 San Sebastian
Pais Vasco, Spain
mjmorenojuan@gmail.com



consulting

p-consulting.gr
1 ANTHEMIU & K. PALAMA STR
26442 Patras, Greece
pga@p-consulting.gr



European Forum for Vocational
Education and Training (Efvet)
rue d'Arlon 40
1000, Brussels Belgium
efvet-office@efvet.org



SECOT
PLAZA DE EUROPA, 20018,
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Pais Vasco, Spain
easdel@secot.org



Co-funded by the
European Union

This document reflects the views only
of the authors, and the Commission
cannot be held responsible for any use
which may be made of the information
contained therein.



Small Business Focus
16 Walcot Buildings
Bath, BA1 6AD, United Kingdom
anj@hendersoncommunications.co.uk



University of Applied Sciences Ltd.

Haaga-Helia University of Applied
Sciences
RATAPIHANTIE 13
Helsinki, Finland
kitte.martinen@haaga-helia.fi